



ilargiaren **bi**
aldeak






**Antzerki, dantza eta zirkoa biltzen dituen ikuskizuna.
Famili osoari zuzendua.**

Ilargiaren alde banatan bizitzak taupada desberdinak ditu. Alde batean, gaztetxo batek gerra-jolasetan gozaten du; bestaldean, beste gaztetxo batek, jolas egiten du gerra ahaztu ahal izateko.

...“Marra batzuek banatu egiten dute. Dena. Bitan. Hegoa eta Iparra; zuriak eta beltzak; azkarrak eta ergelak; handiak eta txikiak; zoriontsuak eta zorigabeak; aberatsak eta pobreak. Marra batzuk hesi dira. Marraren alde batean edo bestean. Marraz honuntza. Marraz haruntza. Ez pasa; ez sartu; ez zapaldu. Kontuz, marra! Marra batzuk ikusi litezke. Eta tolestu; eta borobildu, eta bihurritu, eta astindu. Marrak gainditu litezke, eta zapaldu, eta mugitu. Marren gainetik, marren azpitik, marretan barrena ibil gaitezke. Marra batzuk ikusezinak dira. Eta hala ere tolestu litezke; eta borobildu. Eta bihurritu eta astindu. Eta gainditu, zapaldu, mugitu. Eta marrak batu dezake. Eta ez banatu. Zer da marra, bi puntu elkartzen dituen lerroa besterik?”




jolasa. Bi ume jolasean. Ume guztiek halaxe egin behar dutela sinetsita. Elkarrekin jolastu. Baina gure protagonistei ordeza zaila egiten zaie elkarrekin jolastea; marra bat dute tartean eta ilargia guzti horren lekuko- Horixe da historia honen abiapuntua.



gaztetxo 1ek lagunak nahi ditu jolaserako. Ez dauka jostailu handirik, ez-eta beharrik ere. Aberatsa da bera imajinarioz. Ezerezetik mundu berri eta erakargarriak sortzeko gaitasuna landu du. Eta gozatu egiten du. Lagunak estimatzen ditu, poza bezala, mundu berriak askoz ere aberatsagoak direlako konpartitu ezker. Natura da bere jolas parkea eta zein aberatsa den jolaserako badaki. Isiltasuna maite du eta ilargia ondo ezagutzen du. Badaki ilargiaren magiaz eta ilargiaren arriskuez. Ilargiaren beste toki batera eramango du bere irudimena: berak bizi izan duen toki batera. **gerra.** Han ere ilargia garrantzitsua zen eta lagunak munduko altxorrik preziatuena.

gaztetxo 2k, aldiz, denetarik dauka, moda-modan dauden azkeneko jolas makinak, batez ere.. Ez du hezur-haragizko lagunik behar ondo pasatzeko. Pantailako lagun birtualak ikaragarriak dira eta gerra jolas on bat nahikoa du dibertitzeko. Sokatxoak, ezkutaketa jolasak... horiek guztiak zertarako? Hiria da bere etxea eta lasai asko eta gustura mugitzen da bertako kaleetatik zarata eta hots artean. Marraz betetako mundua da berea.



“Ilargiaren bi aldeak” ikuskizuna familia osoarentzat egokia izango bada ere, 7 urte baino gehiago duten umeei zuzendua egongo da bereziki. Beraiengana gerturatuko diren egoerak, erritmoak eta musika izango ditu oinarri. Eta bi protagonistekin identifikatu araziko ditugu: bietatik izango dute pixka bat. Ez baita egia, denok marraren alde batean edo bestean kokatzen garenik. Kontua da, marraren ze aldetan kokatzen garen jabetzea. Eta alde bakar batean geratu ezkerreko zer irabazi eta zer galtzen ari garen konturatzea.

Irudi erakargarriak, erritmo eta egoera inguratzaileak eta jolas egiteko modu ezberdinak. Hau dena galdera bat egiteko: gerretara jolastuz benetan dibertitzen zara?











fitxa artistikoa

dramaturgia eta zuzendaritza: agurtzane intxaurreaga
aktore-dantzariak: miren gaztañaga, amaia pascual
aktore-akrobata: maider yabar

koreografia: mirian perez cazabón
testuak: arantxa iturbe, agurtzane intxaurreaga
raparen testua: uxue alberdi

musikaren ardura: makala d.j.
argiak: xabier lozano
irudiak: david bernués
jantziak: ramón garcía
atrezzoak: jabi tirado, mikel laskurain
espazio eszenikoa: agurtzane intxaurreaga
diseinu grafikoa: laia
tenientearen ahotsa: mikel laskurain

ekoizpen zuzendaritza: hika
ekoizpen exekutiboa: mikel laskurain, hika
talde teknikoa: eragin
administrazioa: olite juaristi

banaketa: portal 71



Agurtzane Intxaurreaga Etxebarria

dramaturgia eta zuzendaritza

Informazio zientzietan lizentziatua EHUan (1992) eta Hika teatroko sortzaile eta kide 1990tik. Antzertin (Eusko jaurlaritzako Antzerki zerbitzua) burutu zituen bere aktore ikasketak, baina laster hasi zen antzerki obrak idazten eta zuzentzen.

Egile eta zuzendari gisa egindako lan aipagarrienetakoak dira: *Ai, ama!*, Max saria 2003 euskarazko testurik onenari; *Ixa*, Max saria 2005 euskarazko testurik onenari; Alsessandro Bariccoren *Seda*, (2005) Garnacha de Haroko Antzerki Jaialdian. Eszena montajerik onenaren saria eta zuzendaritza onenarena lortu zituen eta baita Torrejon de Ardozeko emakume eszena zuzendarien VIII Jaialdi Nazionalean, lehenengo saria.

Lau urtetako geldialdia eta gero, 2009an *Aitarekin bidaian / El viaje de mi padre*, lana aurkeztu zuen eta harrez geroztik

hainbat sari jaso ditu: “2010 Donostia Antzerki saria” eta “Garnacha de Haroko ikuslearen saria ikuskizun onenari eta epai mahiaren izendapen berezia”.

Bere azken lana “Gorakada” antzerki taldearekin egin du, familia osoari zuzendutako Suzanne Lebeau dramaturga Kanadiarraren *El Ogrito/ Ogro txikia*.

Horrez gain, urte guzti hauetan **telebistako gidoilari** gisa lan egin du eta *Teresa eta Galtxagorri* ipuin bilduma argitaratu ditu (Banaka media, 2010/11).



Amaia Pascual Aizpeolea

aktore-dantzaria

Bilboko Muelle3 Dantza Elkarteko kidea. 1996tik, bere dantza formazioa ugaria izan da eta Dantza Berriaren teknika ezberdinak landu ditu: T. Alexander, Contact-improvisación, Sistema Consciente para la técnica de movimiento, Flyin low, Authentic Movement, Body Mind Centering, Laban eta Butoh.

Antzerki munduari dagokionez, Antzerkiola Imaginarioan egingo ditu bere aktore hastapenak.

Bere antzerki-dantza lanen artean, besteak beste, aipagarria da “Amaruma” dantza taldearekin hiru pieza motzen interprete eta sortzaile modura Certamen de Jóvenes Coreógrafos Vascos-en parte hartu zueneko. “Antzerkiola Imaginarioarekin” ere hainbat kolaborazio egin ditu, adibidez, 2003tik 2006ra *Ritos, gure azken lur zatia*, urteko proiektuan parte hartu zuen.

Era berean, 2004-2006 tartean TRUEKE GUNE bat sortzen hasiko da Punto De Fugan (Bilbo), PERIFERIAK 2005-2006 topaketetan bi pieza estrenatuz: “¿Por qué todo junto se escribe separado y separado se escribe todo junto?” (2005) eta “Etxez etxe” (2006).



Mainer Yabar Calvo

aktore-akrobata

Bere lehen hastapenak interpretazioaren munduan Donostiako arte eszeneikoen Tailerrean eman zituen, 1995tik 1998ra-ino. Honen ondoren, Garbi Losadak eta Felipe Lozak idatzitako eta Vaiven producciones taldeak ekoitzitako *Lotsaga-beak* ikuskizun arrakastatsuan parte hartu zuen, 2002an Donostia Antzerki Saria eskuratuz.

2002an Rio de Janeirora abiatuko da zirkoko akrobata gisa ikasketak burutzeko. Handik Habanaraino, teletako trapezista eta eskuekin jasotzaile gisa espezializatzeko asmoz.

2004an Euskal Herrira itzuliko da eta bere lehen konpainia sortuko du, “Azul-killas”, non sei urtez 350 emanaldi baino gehiago egingo dituen aireko artista bezala, *Encubando la Luna* eta *Historias de un baul* kaleko ikuskizunekin. (2004an Leioako Umore azokan bi sari hartu zituzten eta 2006an Vilanova eta Geltru Trapezin zirkoko numerorik onenaren saria eskuratu zuten).

Gaur egun “Buruz behera” konpainia sortu du eta Jasone Albak zuzendu duen *Tacones al aire* da bere lehen ikuskizuna.

Guzti honetaz gain, urteak daramatza zirkoko eskolak ematen kultur etxe ezberdinetan.



Miren Gaztañaga Zabaleta

aktore-dantzaria

Arlo asko jorratu dituen aktorea dugu Miren. 1998tik hona “Antzerkiola Imaginario”-ko kidea da eta talde honekin besteak beste, ikuskizun hauek estreinatu ditu: *8 Olivettis poéticos* (1999), “*Yuri Sam, Otoitza* (2003) *Babiloniako loreak* (2009) edo *Errautsak* (2010).

2008an aktorerik onenaren saria hartu zuen Tapelian, *Crónica de la noche abierta* bakarriketarekin.

Dantza arloan aipagarriak dira honako lan hauek: (2000) Idoia Zabaletak zuzendutako *Gau bakar bat*, eta (2006) “La Calvario” konpainiaren *Ariketa*.

Honez gain, *Martina* (ETB1 eta ETB3) telebista programan lan egin du aurkezle eta aktore modura (2008/2009).

Aldi berean, (2006/2009) “Sagarroi” musika taldean abeslari gisa aritu da.



Myriam Perez Cazabon

koreografa

Bere lehen urratsak dantzari gisa Donostian egiten baditu ere, goi mailako ikasketak “Rotterdamse Dansacademin” burutuko ditu. Bertan maisu handienekin lan egingo du, besteak beste: Anouk van Dijk, Guy Veizman eta Roni Haver, André Gingras, Grece Bellel, Ty Boomershine. Horrez gain, koreografi esberdinetan parte hartuko du, Karen Levi-en *Thin Words*, Guy Veizman eta Roni Haver-en-en *S’adapter ou pas s’adapter* Maaïke van Dijk-en *Väst* (dantza bideoa), Jaako Toivonen *The Inevitable*.

Euskal herrira itzuli ondoren, “Donostiako Musika eta Dantza eskolan” dantza garaikideko eskolak ematen hasiko da eta baita “Estudio 84” akademian ere. Hala ere, ez dio dantzari gisa lan egiteari uko egingo eta besteak beste, lan haue-tan parte hartuko du: (2009) Dantzan Hirian, MaDanza eta Mudanzas Jaialdie-tan aurkeztu zen *Apple Street* lana, Iker Gomez koreografoarena; (Brasil, 2008) Dança em foco Jaialdian aukeratua izan zen *Permanent Vacation* (bertsioa), Larraitz Torresekin batera sortutakoa.



HIKA antzerki taldea s.l.
Aldapa kalea 14. 20012 Donostia.
tel.:656792501- 633252200
hika@hikateatroa.com · www.hikateatroa.com
www.ilargiarenbialdeak.com · www.lasdoscarasdelaluna.com
Banaketa: PORTAL 71. 944100798. 635708999. portal71@portal71.com